



AUTOA ETXEAN UZTEKO EGUNA DA GAUR

Autorik Gabeko Egunarekin bat eginez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaurko eskualdean >7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-09-22

VIIURTEA 1.782 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Herenegun jokatu zituzten Amezketa finaleko partidak; jende ugari izan zen Larrunarri pilotalekuan. SARA GOMEZ

IRURTZUN AURRERA SAIAZI GAIENDU ZAIO FINAL HANDIAN

AMEZKETA XX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa irabazi zuten nafarrek eskualdekoen aurka bi partida irabazita; giro polita izan zen z

Espero baino jende gutxiago Tolosako Garagardo Festan s

Transportes
Lakunza garaile
'Billabonara'
areto futbol
txapelketan z

Iker Ercilla gidaria nagusitu da berriro Autoen Slalomean

ZIZURKIL 17 auto lehiatu ziren eta antolakuntza «oso gustura» azaldu da txapelketarekin z



Tolosako Kultur Etxean egin zuten festa herenegun goizean. HITZA

Eskualdeko musulmanek festa handi batekin amaitu dute Ramadana

TOLOSA 200 lagun inguru elkartu ziren herenegun, baraualdiari amaiera emateko z



bidali
opor
hauetako
argazkiak!

NORA
BIDALI?

tolosaldean@tolosaldekohitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzako egoitzetara



1. Saria


Getariko
Saiaz hotelean
bi lagunentzat
asteburuko egoitza

2. Saria

Karlis argazki denboran
argazki erreportajea

3. Saria

Gabiriko Kortan
bi lagunentzat



Irurtzun Aurrera Saiazi gailendu zaió Joxean Tolosa Txapelketaren finalean

Amezketá » Aurrera-Saiazen aurka bi partida irabazi zituzten Irurtzungoek; pilotalekua jendez lepo egon zen.

ERREDAKZIOA

Hilabete luzeetako lanaren ostean, Joxean Tolosa Txapelketari herenegun arratsaldean eman zioten amaiera. XX. edizioa izan duen txapelketan, asteburuero, partidaz partida pilota eskolak kanporatzen joan dira, eta Irurtzun eta Aurrera-Saiatz Pilota Eskolak iritsi ziren final handira.

Irurtzun Txapelidun

Hiru hilabetetan, asteburuero bi kanporaketa jokatu ostean, Irurtzun eta Aurrera-Saiatz izan ziren finalerako sailkatuak. Igande arratsaldean jokatu zituzten Txapelketa bukatzeko falta ziren azken hiru partidua.

Lehen partida, kadete mailakoa izan zen eta Arratibel eta Beraza gazteak aritu ziren nor baino nor. Arratibelek 18-9 irabaztea lortu zuen. Arratibel, hotz hasi zen jokatzeko eta 3-9 galtzen joan arren, partidari buelta ematea lortu zuen eta «oso ondo» bukatu zuela esan behar da partida bikaina eginez. Irurtzungo Berazak aldiz, hasiera ona izan zuen baina partidak aurrera egin ahal, asko jaitsi zen.

Partida honen ostean, gazte mailakoa etorri zen; Aurrera Saiatzko Apeztexea, Irurtzungo Zabaletaren aurka. Kasu honetan, Irurtzungo Zabaleta jaun eta jabe nagusitu zitzaion Apeztexeari, 18-8 irabaziz. Partida baten faltan, banakakoarekin zeuden bi klubak eta Nagusien arteko partidak erabaki behar izan zuen txapela nora joango zen.

Nagusien mailako finala, hau da Onsalo eta Armendarizen artekoa, XIX. Joxean Tolosa Txapelketan jokatu zen berbera izan zen. Kasu honetan ere, joan den urtean bezala, Irurtzungo Armendariz nagusitu zitzaion Aurrera-Saiatzko Onsalo...



Finaleko partidetakone bat. Pilotalekua lepo beteta dagoela ikus daiteke. SARA GOMEZ

lori. 18-13 bukatu zen partida. Beraz, bi partid poltsikuratuta Irurtzun izan zen txapelidun XX. Joxean Tolosa Txapelketan.

Giro «ederra»

Giro «ederra» izan zen herenegun Larrunari pilotalekuan eta erabat bete zen azken partida hauetaz gozatzeko gogoarekin.

Bertaratu zirenen artean, nola ez, bere izena daraman txapelketako finalean ez zuen hutsik egin Joxean Tolosa pilotari ohia. Euskadiko federazioko lehendakaria den Xabi Errasti ere Amezketako frontoan izan zen.

Sari banaketaren ondoren, protagonistak, laguntzaileak eta antolatzaileak, Zazpi Iturri Elkartearen bildu ziren afari eder baten bultzatuta. «Nahiko solas egiteko parada izan zuten». Afarian bertan izan ziren Euskadiko Lehendakaria eta baita, Joxean Tolosa bera ere.

» XX. JOXEAN TOLOSA TXAPELKETA

Finaleko emaitzak

- **Kadeteak.** Arratibel 18 - Beraza 9.
- **Gazteak.** Apeztexea 8 - Zabaleta 18.
- **Nagusiak.** Onsalo 13 - Armendariz 18.

Parte hartu duten klubak

- **Gipuzkoa.** Amezketá, Lizartza, Aurrera-Saiatz, Lazkao, Bergara,

24 Pilota Eskola

Aurtengo txapelketan nobedade garrantzitsu bat izan dute eta ez dituzte zuzenean pilotariak gonbidatu baizik eta, klubak edo pilota eskolak. Maila handiko klubak arituko dira Amezketan, guztira 24.

Nafarroatik zazpi, Iparraldetik bat (Panpi Laduexek bideratzen duena), Gipuzkoakoak izan dira gehienak, 13 eta Arabakoak bi. Biz-

Hernani, Arrasate, Azkoitia, Antiguo, Usurbil, Andoain, Azpeitia eta Añorga.

- **Nafarroa.** Irurtzun, Hoberena, Erreka, Txaruta, Olazti, Burlata eta Arbizu.
- **Lapurdi.** Hendaia.
- **Araba.** Zaramaga eta Txukun Lakua.
- **Bizkaia.** Ezin izan dute parte hartu abuztuaren itxi egiten dutelako.

kaitarrak ere gonbidatu zituzten baina ezin izan dute parte hartu, «askok abuztuaren zehar itxi egiten zutelako».

Argi zegoen, finala oso irekia izango zela eta talde askok izango zutelá txapelketa irabazteko aukera. Azkenean, lehia gogorraren ondoren, Irurtzun eta Aurrera Saiatz izan dira finala jokatzerá iritsi zirenak.

Aurtengoan beraz, Nafarroatik etorritako irurtzundarrak izan dira nagusi eta beraiek eraman dute Txapelketa. Aurrera-Saiatzekoak aldiz txapelidunorde geratu ziren. Bestetik, finalean pasatzea lortu ez bazuten ere, ezin aipatu gabe utzi, eskualdeko taldeak ditugun, Lizartza eta Amezketak egindako lana. Azken biek, finalerdietara iristea lortu eta finalaren atzetan geratu behar izan zuten, finalean ez baitago denentzat lekurik.

Antolatzaileek orain, egindako lana eta gero, atsedena hartzeko unea izango dute baina hurrengo urtean ziur berriro ere, beste urte batez, pilotaz gozatzeko aukera eskainiko digutela.

Ipuin kontalaria eta Auzo Bazkaria udazkeneko ekintzen artean

Urkizu » Ostegunean, Idoia Sanchez ipuin kontalaria eta larunbatean auzokoaren arteko bazkaria izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Urkizu Auzo Elkarteak ere udazken iristearekin batera, hainbat ekintza antolatzen ditu.

Eguraldiak asko lagundu ez baziren ere, igandean, Urkizutik Zela-tunera mendi irteera egin zuten.

Ipuin kontalaria

Ostegunean, hilak 24, Galtzaundiren eskutik ipuin kontalaria izango da. Hainbat pasadizo kontatuko dizkie Urkizuko txiki eta ez hain txikiei ere.

Auzo Bazkaria

Ohiturak ez direnez galtzen utzi behar, aurten ere Auzo Bazkaria antolatu dute, hilaren 26rako. Pasaden urtean, oso arrakastatsua izan zen bazkari hau. Bazkarian, Auzo Txikiako bizilagunetz gain, Albiztur Goiko eta Urkizuko auzotarrak izan ziren. Bazkalordurako denak Kaxkoan elkartuko dira.

Laburrak

Hiru pilota eskolak elkartzearen arrazoiak

ALEGIA » Alegiako Intxurre Pilota Eskolak, Altxoko Elordi Pilota Eskolak eta Ikaztegiatiko Herrigintza Pilota Eskolak, hemendik aurrera Pilota Eskola bakarra osatuko dute. Bateratzearen zergatiak azaldu eta zalantzak argitzeko bilera egingo dute gaur arratsaldeko 19:00etan Alegiako Kultur Etxean. Batez ere, bilera deialdi hau gurasoei zuzendua dago.

Euskara ikastaroak antolatzeko bilera deialdia

AMEZKETÁ » Ilkasturte berriarekin batera laster hasiko da Euskara ikastaroa. Aurreko ikasturtean maila desberdineko bi talde sortu ziren. Iaz, gustura aritu ziren eta pozik daude ikasitakoarekin. Aurten, jende gehiago ere animatzea espero dute. Eta azaltzen diren beharren arabera antolatu nahi dituzte taldeak eta saioak. Horregatik, euskara ikasteko, hobetzeko edo laguntzeko interesa duten guztiak bilera egingo dute. Irailak 24, osteguna, 20:30ean gela polibalentean elkartuko dira. Pintxoak eta ardoa izango dira bertara joaten direnentzat. Euskara dakitenek ere asko egin dezaketela gogoratzeko dute.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

- **Etxebizitza.** Villabona eta Iruran etxebizitza alokatzen da. Bata 600 euroan, eta bestea 650 euroan. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.
- **Kafetegitegi-txokolategia.** Tolosan, erdigunean, marxan dagoen kafetegitegi-txokolategia alokatzen da. Arrazoiak: jubilazioa. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

SALGAI

- **Etxebizitza.** Alegian, San Juan auzoan etxebizitza salgai. Bi loge-

la, sukualdea eta egongelarekin. Prezioa: 156.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

■ **Etxebizitza.** Alegian, Larraitz auzoan, etxebizitza berritua. Sukalde ederra, bi logela, egongela eta bi bainugelekin. Prezioa: 174.000 euro. Telefona: 669 82 70 96.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Gorosabel kalean, bi etxebizitza saltzen dira. Toki oso onean. Bata, bi logelakoa, 180.000 euro. Bestea, berriz, 156.000 euro. Telefono zenbakia: 669 82 70 96.

@ X. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA.

Asteartetik larunbatera bitarte Hitzak bere lehiaketara heltzen diren argazkiak argitaratuko ditu. Horretaz gain, gure webgunean ikusgai daude orain arte heldu diren guztiak. Paisaiak, eraikuntza ikusgarriak, beste herrialdeetako ohiturak, mendiak, itsasoa... denetarik topa daiteke argazki hauetan. Ez egin duda eta bidali zurea ere. Sari interesgarri eta potoloak daude aukeran. Irailaren 24ra arte duzu horretarako aukera. Lehen hiru sailkatuek sari mundialak jasoko dituzte, beraz animatu parte hartzerá!

www.tolosaldekohitza.info

Iker Ercilla iazko txapeldunak irabazi du aurten ere Autoen Slaloma

Zizurkil » Guztira 17 auto aritu ziren; «oso gustura» daude antolakuntzako txapelketak emandakoarekin.

ERREDAKZIOA

Iker Ercilla gailendu da berriro ere Zizurkilgo Autoen Slalomean. Iaz lortu zuen garaipena eta aurten ere auto berberarekin guztien aurretik sailkatu da. Minutu bat, hamar segundo eta 524 ehunen behar izan zituen ibilbidea egiteko. Antolakuntzako Aaron Roblesek azaltzen duenez, «oso gustura» daude txapelketak emandakoarekin. «Eguraldiak lagundu zuen eta jende asko egon zen ikusten slaloma».

17 ibilgailu lehiatu ziren guztira eta horietatik ikusmin handiena car cross-ek sortu zuten. Atzeko trakzioa duten autoek ere ikusgarritasuna eman zien probari biribigunean.

Iker Ercilla lehena izan zen sailkapen orokorrean eta, noski, bere mailan ere, hau da, 1.600 cc. baino gehiagoko motorra zuten autoetan. Lehenengo mailan, 1.600 cc. baino gutxiagoko motordun autoetan Asier Tejado izan zen irabazlea. Hirugarren mailan, atzeko trakzioa duten autoetan, Felix As-



Atzeko trakzioa duten autoek ikusgarritasuna jarri zuten biribigunean. SARA GOMEZ

torkia izan zen irabazlea. Laugarren mailan, car cross-etan, David Terradillos izan zen lehenengo sailkatua.

Gidariak gustura aritu zirela azaldu du Roblesek. «Hasieran pixka bat nahastu egin ziren zirkuarekin, baina gero gustura aritu ziren. Errepikatze gogorekin gelditu ziren». Roblesek ere nabarmendu zuen ikusleek izandako jarrera: «Antolakuntzak aurretik esandako lekuetan jarri ziren eta ez genion inorri atentzia eman behar izan».



Car cross-ek ikusmin handia sortu zuten ikuslegoaren artean. SARA GOMEZ

» SAILKAPENA

Lehenengo maila

- **Asier Tejado.** 01:15,308 (3. sailkapen orokorrean).
- **Sergio Mujika.** 01:17,374 (7. sailkapen orokorrean).
- **Mikel Basterra.** 01:18,720 (9. sailkapen orokorrean).
- **Gorka Ildigoras.** 01:18,887 (10. sailkapen orokorrean).
- **Joseba Frutos.** 01:22,520 (13. sailkapen orokorrean).
- **Iñigo Artetxe.** 01:28,315 (14. sailkapen orokorrean).
- **Amets Mendizabal.** 01:40,328 (15. sailkapen orokorrean).

Bigarrenengo maila

- **Iker Ercilla.** 01:10,524 (1. sailkapen orokorrean).
- **Jose Ignacio Arroita.** 01:15,558 (4. sailkapen orokorrean).
- **Argoitz Otadui.** 02:18,427 (16. sailkapen orokorrean).

Hirugarrenengo maila

- **Felix Astorkia.** 01:15,609 (5. sailkapen orokorrean).
- **Yago Fuentes.** 01:19,826 (11. sailkapen orokorrean).
- **Andoni Telleria.** Baliogabetua (17. sailkapen orokorrean).

Laugarrenengo maila

- **David Terradillos.** 01:12,504 (2. sailkapen orokorrean).
- **Imanol Lakar.** 01:16,290 (6. sailkapen orokorrean).
- **Ion Amiama.** 01:18,201 (8. sailkapen orokorrean).
- **Urko Andueza.** 01:20,408 (12. sailkapen orokorrean).

Transportes Lakunzak irabazi du 'Billabonara' txapelketa

Villabona » Lasarteko Klinika Dental Aldazi 4-3 irabazi zioten finalean; 16 talde izan ziren 24 orduko areto futboleko lehiaketan.

ERREDAKZIOA

Giro «oso ona» izan zen asteburu honetan jokatu den *Billabonara* 24 orduko areto futboleko txapelketan. Gainera etxeko talde batek eraman zuen txapela. Villabonako Transportes Lakunza taldeak Klinika Dental Aldaz Lasarteko taldeari 4-3 irabazi zion finalean. Partida oso borrokatua eta gogorra izan zen.

16 talde aritu ziren lehiatzen, horietatik sei talde Villabonakoak. Asteasu, Alegia, Legorreta, Lasarte eta Andoingo taldeak aritu ziren lehiatzen. Finalera areto futboleko ligetan aritzen diren bi talde iritsi ziren. Izan ere, txapelketa irikita zegoen edozein talderentzako.

Nahikari Iturbe antolakuntzako kideak azaldu duenez, Olaederra



Finalaren partida hasi baino lehen, bi taldekoak agurtzen. E. EZEIZA

kiroldegiko kantxaz gain, «tabernan ere giro ona izan zen. 24 orduetan, gehiago edo gutxiago, jendea izan zen partidak ikusten». 16 taldek parte hartu zuten, hasieran ligaxka bat egin zen. Horrela, zozketaren talde bakoitzak hiru partida jokatu zituen eta lehenengo zozketaren ondoren egin zen zozketa. Aburuz sagardotegian lau lagunentzako afaria zen saria.

Txapelketako jokalarionen saria Hautsi Izagirre billabonatarrentzat izan zen, Transportes Lakunza taldekoa. Olaederrako kantxa berritua estreinatu zuten *Billabonara* txapelketarekin eta jokalariek gustura agertu ziren. Bestalde, zozketaren sariduna ere seguitan agertu zen. Txapelketaren sari banaketaren ondoren egin zen zozketa. Aburuz sagardotegian lau lagunentzako afaria zen saria.



Transportes Lakunza taldea, txapelketako irabazlea. HITZA



Klinika Dental Aldaz taldea, azpitxapelduna. HITZA

Ramadanari amaiera festa handi batekin eman diote musulmanek

Erljioa » 200 lagun inguru elkartu ziren igandean Kultur Etxean; bertan baraualdiaren bukaera ospatu zuten.

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean, 20:20ak inguruan, eguzkia ezkutatu zen bezala amaitu zen aurtengo Ramadan garaia. Ala jainkoari eskainitako hilabetea da hau. 29 egunetan, eguzkia ateratzen denetik sartzen denera barau egiten dute zentzu guztietan: jan eta edan gabe, sexurik gabe, pentsamentu txarririk gabe...

Erljio musulmanaren oinarrietako bat da Ramadan. Baita, erromesaldia, errezatzea eta aberastuenen zati bat pobreei ematea ere. Ilargiaren urteko bederatzigarren hilabetea da Ramadanarena. Honek kristauen garizuma garaia antza du. Norberaren mugak ezagutzeko tartea da hau, ezer ez duten lekuan jartzekoa, baita gaixo daudenenean... Bizipen pertsonal handia suposatzen du musulmantzat, izpiritua eta gorpuzaren mugak zeintzuk diren ikusteko bali du, gogoarekin borroka egin behar baitute.

Ramadan egiten duena bi unetan pozten da. Alde batetik, egunero, baraualdia amaitzeko unea iristen denean. Bestetik, egun handian, hau da, azken epeira



Igandeko ekitaldian, errezatu, abestu eta abar egin zuten; estreinakoz, Kultur Etxean egin dute. HITZA

iristean». Musulmanen hitzetan, Ramadan egiten dutenek, hil eta gero, paradisuko baratzen, toki berezi bat izango du gordea Ramadan egin dutelako.

Ramadan amaitzean, festa handia

Ramadan garaia amaitzean festa handi bat egiten dute musulmanek elkarrekin. Honekin, normaltasunerako itzulera hori iragaritzen dute. Aurtun, estreinakoz, hainbat lagunek Tolosako Kultur

Etxean ospatu dute jai. Herrialde eta jatorri ezberdinetako 200 musulman inguru elkartu ziren bertan. Orain arte, Ordizia, Errenteria nahiz Zumarragara joaten ziren egun handi hau ospatzera, baina aurtun lehendabiziko aldiz Tolosako toki publiko batean egin ahal izan dute.

Ekitaldiaren hasieran, errezatu eta abestu egin zuten. Biak ere eskertza moduan. Ondoren, elkarri zoriondu zioten eta adiskidetzeko aprobetxatu. Izan ere, Ramadanaren

ostean, une hau erabiltzen da aurretik zeuden gaizkiulertu eta haserreak gainditu, eta berriro hasteko. Egun honetan, bakoitzak dituen jantzi dotoreenak janzen dituzte, eta etxetik jakiak eraman, ondoren elkarrekin dastatzeko. Egunari amaiera emateko festa den tokira bertaratu ezin direnengana joaten dira, hau da, gaixo edo ezinean dauden, ahaide eta lagunengana. Hilerrri musulmanak dauden kasuetan berriz, hara ere joaten dira.

Kultur ikastaroetan izena emateko epea laster amaituko da

Kultura » Antolatzaileek ohartarazi dute aurtun zorrotzagoak izango direla izen-emate epeekin; eta bete egin beharko direla.

ERREDAKZIOA

Ikasturte honetarako ere kultur ikastaroen eskaintza zabala prestatu dute Udalekoek. Hauetan parte hartu nahi dutenek lehenbailehen eman beharko dute izena. Egun gutxi falta baitira matrikulazio epea amaitzeko.

Lehen ere ikasle zirenek, beraien plaza gorde zedin joan den astean eman behar zuten izena. Orain berriz, aste honetan, ikasle berriek dute matrikula egiteko aukera. Ohartarazi dutenez, batzuek, arautegiak dioenez jabetu gabe, urtero parte hartzen duten

ikasleek matrikula beranduago egin ohi dute, baina aurtengoan zorrotzago jokatu dute epearekin. Hori dela eta, izen-emate epea amaitu ondoren, talde bakoitzean gutxieneko matrikula kopurua betetzen ez bada bertan behera geratuko da ikastaroa.

Aurtengoan, eskaera asko jaso dituzte ikastaro berriak antolatzeke, eta guztiak egitea ezinezkoa denez, aukeratzeko ezinbestekoa izango da. Beraz, matrikulatu gabeen nabarmen zuten diete, «beraiekin taldea bertan behera geratu daitekeela matrikula epe barruan ez badute egiten».

Matrikula egiteko ordutegia ondorengo da: astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara eta arratsalde, 17:00etatik 19:00etara. Honetarako Kultur Etxeko bulegora jo behar dute interesatuek.

Herrizaingoa eta Eudel akordiora iritsi dira kartel eta pankartak kentzeko

Politika » Rodolfo Ares sailburuak adierazi duenez, hitzarmen bat sinatuko dute hemendik egun gutxira.

ERREDAKZIOA

Eusko Jaurilaritzako Herrizaingoa sailak eta Eudelek datorren egunetako batean, akordio bat sinatuko dute «biktimen memoria mintzen eta Legea urratzen duten kartel eta pankartak kentzeko». Horren berri atzo eman zuen Bilbon Rodolfo Ares, Eusko Jaurilaritzako Herrizaingoa sailburuak.

Ares, Ertzaintzaren buruak Forum European baieztatu zuen Herrizaingoa sailak eta berak zuzentzen duen Ertzaintzak, nahiz Eusko Jaurilaritzak beraien betebeharrak burutzen jarraituko du-

tela, hau da, «askatasuna defendatu eta legalitatea nahiz elkarbizitza bermatzen Euskal Autonomia Erkidegoan».

Aresk agertu du ekimen honen helburua pedagogia demokratiko politikoa batean aurrera egitea dela, baita, ETARI aurre egitea; eta ez, aurreko Gobernuaren portaera itsustea.

Bestalde, Eusko Jaurilaritzak azken asteetan izandako jokamoldearen ostean, sortu diren «desadostasuneko ahotsak» aipatu zituen, eta hauei esan nahi izan zien, Ertzaintzak ezin duela beste alde batera begiratu, malgua izan edo delituak ez jarraitu, indarkeria babesten duten intolerante eta faxistak ez haserretzeko. «Ezin digute eskatu geldirik egoteko piztia ez asaldatzeko eta haserretzeko, ondoren atentaturik gerta ez dadin», gaineratu zuen Aresk.

L Laburrak

Tolargi eta Tolosagaren argazki lehiaketa hemen da

AISIA » Hilaren 30ean, Tolargi-Tolosagarako antolatzen duen argazki lehiaketarako argazkiak aurkezteko epea amaitzen da. Aurtun, gaia *euskara eta gure kultura* da. Irabazleak urtebetez doan izango du gasa eta argia. Interesatuek Tolosagaren egoitzan edo Tolargin aurkeztu ditzakete argazkiak.

Tolosa Kantariko entsegua izango da bihar iluntzean

KULTURA » Tolosa Kantariren hileroko hitzoduarekin jarraituz, hilaren 26an hemen izango dira. Tolosako Alde Zaharreko kaleetan, 12:00etatik aurrera kantuan ibiliko dira, Tontokalen elkartu ostean. Ildo horretatik, entsegu saio bat antolatu dute biharko. Kultur Etxean izango da hau, 20:00etan.

Gure Txokoa elkarteko eskopetariaren bilera, etzi

AISIA » Gure Txokoa Elkartearrekin eskopetari gisa ateratzen direnen bilera izango da etzi. Batzara elkarteko lokalean egingo da 20:00etan. Eskopeta berriak erosi edo ez eztabaidatuko dute.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Lurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Espero baino jende gutxiago izan da aurtengo Garagardo Festan

Gastronomia »

Eguraldiaren eraginez ez du beste urteetako arrakasta izan; ekitaldietan ere jende gutxi izan da.

INIGO TERRADILLOS

Ezin izaten da beti espero bezain ondo irtetea gauzak, eta horixe gertatu da aurtengo Tolosako Garagardo Festan. Eguraldi txarraren eraginez beste urteetan konparatuz jende gutxi izan da, beraz, aurreikuspenak ezin izan dituzte bete.

Balantze ezkorra, beraz, XI. Garagardo Festari buruz antolatzaileek egin dutena. «Gutxiago saldu dugu, jende gutxiago mugitu delako, orohar». Euren esanetan, ostirala eta igandea izan dira egunik txarrenak, eta «osteguna eta larunbata nahiko ondo joan ziren». Hori gertatzearen arrazoi nagusitzat eguraldi txarra jo dute, «izan ere, esaterako, ez dira ikusi beste urteetan bezainbeste guraso seme-alabekin, eta hori euriagatik izan daiteke; horretaz gain, agian, krisia ere arrazoietak bat izan daiteke». Arrazoa dena delakoa izanik, aurtengoan «azken urteetako emaitza kaxkarrenak» izan dituzte.

Euri asko egin du asteburuan, eta Zerkausiaren kanpoaldean jarri behar zituzten mahaiak ezin izan zituzten jarri, ez eta Zerkausiaren beheko solairuan ere, eta ondorioz aurreikusitakoa baino jende gutxiagorentzat egon da lekua bertan afaltzeko.



Larunbatean eta ostegunean izan zen jende gehiena Garagardo Festan. MARTA SAN SEBASTIAN

Ekitaldietan ere jende gutxi

Bestalde, Garagardo Festaren baitan, hainbat ekitaldi antolatu zituzten, eta hauek ere ez dutela esperotako harrera izan aipatu dute antolatzaileek. Ekitaldirik garrantzitsuena ostiralean izan zen *Martxaundi V* diskoaren aurkezpen kontzertua izan zen. «Eguraldi onarekin izugarria izan zitekeen kontzertua, baina euri ugari egin zuen ostiral gauetan, eta ez zen jende asko izan; hori bai, eskualdeko musikari gazteek ahal zutena egin zuten». Musikarekin jarraituz, ostegunean, Garagardo Festaren le-

hen egunean Musika Bandaren kontzertua izan zen.

Larunbatean, Bizikleta Eguna antolatu zuten, eta honen baitan hainbat jokitan jolasteko aukera izan zuten gaztetxoek. «Dena den, hemen ere ez zen jende asko animatu parte hartzeraz». Herenegun ere, kirola izan zen protagonista, xake erraldoia jarri baitzuten.

Penarekin

Pena da antolatzaileei geratu zaien sentimendua. «Lan handia dago atzetik, eta jende asko mugitzen da gutzia behar bezala prestatzeko,

beraz, egin duen eguraldia eta jende asko ez dela gerturatu ikusita pena sentitzen duzu. Ea hurrengo urtean eguraldi hobea egin duen, eta jende gehiago animatzen den beste urteetan bezala».

Tolosa Judo taldeak, Tolosa CF nesken txirrindulari taldeak, Igarondo Urpekoak taldeak eta Tolosaldea IKTK antolatu dute aurtengo XI. Garagardo Festa. Lau egunetan zehar izan dituzten irabaziak lau taldeen artean banatu dituzte urtean zehar burutzen dituzten jardueretarako balia gertatzen.

Gizonezko bat atxilotu dute Tolosan, lantegi batean kobrea lapurtzeagatik

ERREDAKZIOA

34 urteko gizonezko bat atxilotu zuten atzo Ertzaintzak, lantegi batean kobrea lapurtzen saiatzeagatik. Lapurreta 13:30ak inguruan gertatu zen. Antza, lantegiko segurtasun langileak eman zion Ertzaintzari lapurretaren berri. Ertzaintzaren agenteak lantegira sartu zirenean gizonezko bat ikusi zuten. Honek agenteak ikustean alde egiteko saiakera egin zuen, baina ertzainek harrapatu egin zuten. Atxilotutako gizonezkoa epai-learen aurretikigaroko da gaur.

Eredu sozial eta ekonomiko bidezkoaren alde egiteko, manifestazioa

ERREDAKZIOA

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU eta EHNE sindikatuetako ordezkariek batzarra egingo dute gaur goizean Donostian, eta ondoren, manifestazioa eredu ekonomiko eta sozial bidezko baten alde egiteko. Batzarra 10:00etan izango da Josean Gasca kiroldegian. 11:30ean abiatuko da bertatik manifestazioa.



harpidedun izateak badu saria

- ① 2 lagunentzako otordua



Errosario plaza • ORENDAIN
tel.: 943 65 30 48



- ② 2 sarrera eta argazki liburu bat

Mendukilo kobazulorako



Nafarroa iparraldean, Plazako Partzuergo Turistikoaren eremuetan eta Arabako mendizerraren magalean, Zehozkiago, Larraungo bailaran, Astitzko kontzejaren herri lurretan.
Astiz • 948 396 095 • mendukilo@mendukilo.com • www.mendukilo.com

- ③ Zerbitzu oso bat
Honekin ileapaindegian



Santa Maria Plaza, 1 • TOLOSA
tel.: 943 67 22 44

- ④ 3 diskoz osaturiko sorta

baga-biga disketearen eskutik



Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitza.info [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Jaiak «probokazioetan erori gabe» igaro zirela nabarmendu du LUAK

Lizartza » Festen balorazioa egiterakoan Kontsuelo Agirrebarrena momentu oro izan dutela gogoan nabarmendu dute.

ERREDAKZIOA

Bi aste pasa dira Lizartzako jaiak amaitu direla eta orain balorazioa egiteko garaia ere iritsi da. Jaiak Lizartzako Udal Alternatiboak (LUA) antolatu zituen.

Regina Otaola alkateak (PP), bere aldetik, bando batean esan zuenez «udal korporazioak inolako ekintzarik antolatzeko eurorik ez gastatzea» erabaki zuen.

Udal Alternatiboak lehenik eta behin eskerrak eman nahi izan dizkie jaiak egin ahal izateko «ezinbestekoz, borondatez etorritako musika taldeei, herri kiroletako partaideei, zestapuntakoei, segalariei, enpresa laguntzailei...».



Ekitaldi ugari antolatu zituzten, tartean helduen dantza soka emanaldia. E. EZEIZA

hau da, Arrospe ileapaindegia, Itzala kafetegia, Ostaturia, Goikoetxeandia zerrategia, Ostatu taberna, Balmaseda, Arrospe, Allianz aseguruak, Emon musika taldea, Giza proiektua, Armstrong, Otegi eraikuntzak, Zesta punta jokalariek, Karmelo sagardoak, In-saluz, Iluzti ileapaindegia, Joxe Mari taberna, Lizar supermerkatua, Goikoetxe janiaridenda, S. Sebastian arrandegia, Araxes, Zuhazki, Gabezin musika taldea, Unsain anaiak, Zer esatek, Kutxa, Izeta harrijasotzailea, segalariek, Goiz argi okindegia eta Bengoetxe baserria.

«Giro alai eta ona»

Horiek horrela, «festak programazio betearekin eta probokazioetan erori gabe, giro alai eta onean bizi» zizutela esan du LUAK.

Probokazio keinuak ez direla falta izan ere nabarmendu du Udal Alternatiboak: «Festen hasiera la-

tza izan genuen, herritarren nahiak eta gogo guztiak zapuztu nahian, beraien legedia jabez, mandatarrien morroiak gure bizilagun maitea den Kontsuelo espetxeratu baitzuten, denen gain samin handiasortuz». Izan ere, gogoratu behar da 61 urtetako Kontsuelo Agirrebarrena hilaren lehen espetxeratu zuela Ertzaintzak Martutenen, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz eta Regina Otaola alkateak egindako salaketa baten ondorioz.

«Kontsuelo momentu oro gure gogoetan izan dugu eta honekin nahikoa ez eta irailarek 8an, festa egunean, Udalean dauden arrotz guztiak, ohiko bihurtzen ari den moduan, Sagrarioko amaren ermitara etorri ziren, herritar askok, egoera normalean bertarutako liratekeenak etxean geratzera bultzatu, herria, ondorioz, hutsik geratu zen, ea egunen batean herritarren nahia entzuten duten», gaineratu dute.

Bukatzeko lanean aritutako guztiak eskerrak eman nahi dizkie Udal Alternatiboak «denon arteko lanarekin Lizartzak aurrera egingo baitu. Gora Lizartzako festak eta gora Kontsuelo».

Denboraldi hasiera bikaina izan du Lauburu taldeak Belabietan

Ibarra » Ibartarrak oso ondo aritu ziren larunbatean eta 5-2 irabazi zioten mailaz jaitsi berri den Bilbo Exbasari.

ERREDAKZIOA

Oso partida sutsua eskaini zuen Ibarra Lauburu areto futboleko taldeak larunbatean. Denboraldiko lehena zen eta azkenean, 5-2 irabazi zioten mailaz jaitsi berri den Bilbo Exbasari.

Ibarra jokalariek gazteek kalitatezko jokaldiak eskaini zituzten partida osoan zehar. Zelaieratu ziren Ibarra lehen bost jokalariek, Joseba Balerdi, Unai Labaca, Ion Garmendia, Cristian Davila eta Ion Ander Karrera izan ziren. Nahiz eta Aitzol Oyarbidek, Victor Sil-



Denboraldi honetan jokalariek gazteak dira nagusi Lauburu. HITZA

vak, Loitzun Sanzek eta Iñigo Arrospeidek ere izan zuten jokatzeko aukera.

Loitzun Sanzek inauguratu zuten markagailua

Lehen gola partida hasi eta 7. minutuan sartu zuen Loitzun San-

zek. Lehen golaren ondotik bilbotarrak jokaldi erasotzaileagoak egiten hasi ziren eta berdinketa lortu zuten. 1-1 emaitzarekin iritsi ziren atsedendaldira.

Bigarren zatia ederki hasi zuten ibartarrek Aitzol Oyarbidek bigarren gola sartu baitzuen hasi eta seguitan Victor Silvaren pase bati esker. Partidaren 26. minutuan ibartarren hirugarren gola sartu zuen Unai Labacak eta bi minutu beranduago sartu zuen bigarren gola Bilboko taldeak. Partidako golik ederrera, hala ere, Ion Ander Karrera kapitain ibartarrak sartu zuen 30. minutuan, ikuslegoa ere txalotzeko altza zelarik. Ibartarren laugarren gola eta gero partidaren falta asko egon ziren eta honen ondorioz Unai Labacak bosgarren gola sartu zuen penaltiz.

Bestalde, gazteen talde probintzialak urriaren 3an hasiko du denboraldia Belabietan kiroldegian.

Suzko barrikada jarri zuten igandean N-1ean «gudarien omenez»

Irura » Ekintzaren ondorioz errepidea 20 minutuz itxi zuten; pankarta bat ere zintzilikatu zuten.

ERREDAKZIOA

Ezezagun talde batek pasa den igandean 15:00etan, N-1 errepidean Irura parean, bide mozketara burutu zuen suzko barrikada baten bidez igandeko Gudari Eguna dela-eta. Barrikadaren ondorioz errepidea 20 minutuz egon zen itxita.

Ekintzarekin batera *Gudarien borrokaz... eta irabazi arte!* zioen pankarta ere jarri zuten. Ezezagunek ohar baten bidez esandakoaren arabera, «gure herriko Jokin Saizar *Kirrua* eta beste gudari guztien borrokari esker Euskal Herria bizirik eta aldaketarako atek zabal zabalik dituela aurkitzen da». «Euskal Herriaren eskubideen defentsan bizia galdu dutenei gure omenaldirik goxoa baldutzen diegu eta bizia ematerainoko konpromisoa hartuta borrokan ari diren guztiei gure elkartasunik iraultzaileena adierazi nahi diegu», gaineratu dute.



Errepidea 20 minutuz itxi behar izan zuen Ertzaintzak. HITZA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Gaur Autorik Gabeko Eguna eta bihartik aurrera partekatu autoa

Gizartea » Munduko hainbat herrialdeetan bezala, Autorik Gabeko Eguna ospatuko dute gaur eskualdean.

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astearen baitan Autorik Gabeko Eguna ospatuko dute Tolosaldeko hainbat udalek. Ondorioz, munduko hainbat hiritan bezala, ekimenaren bultzatzaileen helburua gaur herriartek autoa etxean uztea izango da.

Tolosaldea Garatzenek Autorik Gabeko Eguna ez du egun bakarreko ohitura izaterik nahi. Horregatik, *Partekatu Autoa* proiektua martxan dagoela jakinarazi du.

Urteko beste egun guztietan ere gaurko egunarekin herritarrek bat egin dezaten.

Nondik dator ideia?

Egunerokotasunaren abailan zer da egun bat? Agian batzuk horregatik utziko dute gaur autoa etxean. Beste batzuk aldiz, horregatik ez diote jaramonik egingo Autorik Gabeko Egunari. Batzuk eta besteek ez zuten zalantzarako aukerarik edukiko 1974. urtean. Erregaien krisi sakon baten aurrean, Europako hainbat gobernuak motordun ibilgailuen trafikoa debekatu zuten igandeetan.

Ekimena petrolioaren krisia amaitzean bukatu zen.

80. hamarkadaren amaieran, ekologisten bultzadaz, Autorik Gabeko Eguna hasi ziren ospa-

tzen Europako hainbat lekutan. Horrela, 1987. urtearen irailaren 20ean, Europar Batasunak bat egin zuen ekimenarekin.

Azken saiakera mende zaharrenean amaieran kokatzen da. Gizarte eragileen ekimenak gobernu eta udal desberdinen babesa jasoko du oraingoan. 2.000 urtean, Europar Batasunak *Hiria nire kotxerik gabe* izeneko ekimena bultzatuko du irailaren 22an.

Eta beste 364 egunetan zer?

Tolosaldea Garatzenek argi du zein den bidea: Partekatu autoa. «Auto pribatuak gaur egungo bizitzaren duen garrantzia ikusita, *Partekatu Autoa* proiektua martxan jarri da beste zenbait herrialde edo eskualdeetan egin den moduan.

Tolosaldean, ekimen honi es-

ker, ibilgailu pribatua partekatze-ko interesa duten pertsonak elkar ezagutzeko bidea ezarri da. Proiektu hau martxan jartzeko udalek eman dute informazioa eta zerbitzua Tolosaldea Garatzeneko web orrian jarri da».

Ingurumena eta autoaren erabilera zentzuzkoa aipatu ditu Tolosaldea Garatzenek helburu nagusi bezala: «Eguneroko joan-etorriko bidaietan, iraunkortasuneko neurriak kontuan izatea da eta autoaren erabilera zentzuzkoa sustatzea da helburu nagusia. Ibilgailu pribatuek energia kontsumo handia dute eta gaur egungo kutsadura eragile nagusietako bat dira».

Partekatuko Autoa proiektua Tolosaldeko biztanle guztiei zuzentzen zaie eta ondorengo bi-

daiak hartzen ditu kontutan: «Lanera joateko: Inguruko laneko zentzoren batera joaten bazara eta zure ibilgailu pribatuarekin ibilbide bera egin behar baduzu edo autoa partekatu ahal izateko norbaiten bila ari bazara, atal horretara bidera zaitezke.

Unibertsitatean ikasten edo lan egiten baduzu eta edozein unibertsitate-tara bidaiara bera partekatzeko norbait bilatu nahi baduzu.

Bidaian joateko: Bidaiek tarteka edo aldizka egiten badituzu, beste hiri batzuetara edo atzerriara, hemen topatu ahalko dituzu bidaiako gastuak partekatzeko interesa duten pertsonak».

Ekimenaren berri jasotzeko berri-ondorengo aukerak jarri dituzte: «Udal web orrialdeetan edo www.tolosaldeagaratzen.net klikatuta. Zure bidaiaren antzekoa egiteko izena eman duten pertsonak online ikusi eta egokien deritozun pertsonari mezu elektronikoa bidali ahal izango diozu, modu erraz eta doakoan».



Ikaztegieta eta Asteasu bizikletaz loturik

TOLOSALDEA » Sei urteren buruan eskualdeko herriak elkarren artean lotuko dituen bidegorri sarea eraikita egongo da Tolosaldea Garatzenen arabera. «Tolosaldeko udalerrietako biztanleok, modu iraunkorragoan egin ahal izango ditugu gure eguneroko joan etorriak; bai lanera hurbiltzeko, auzoan edo alboko herrian erosketak egiteko, garraio publikoren

batetara gerturatzeko edo aisialdi garaian gozatzeko. Hone- la, kirola egiteaz gain, auto pribatuak sortzen dituen kutsadura, zarata eta auto ilarak saihestuko ditugu, eta bide batez, sos batzuk aurrezten ere lagunduko digu». Eskualdeko bidegorriaren sarea osatzen doala aitzakiatzat hartuta, eta Mugikortasun Astearen baitan, Ikaztegieta eta Asteasu he-

rriak lotu zituzten herenegun ospatu zen Bizikleta Festan. Goizeko 10:00tan Ikaztegieta eta Asteasuko plazetatik abiatuko ziren eta 11:30ak inguruan Anoetan egin zuten topo partaideek. Hara iritsi zirenean hamaiketako prest zuten txirindulariek, ondoren berriz, jaiarekin bat egin zuten artean bizikleta bat zozketatu zuten. NOELIALATABURU

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balañarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Jubilatuko elkarrekin hilaren 23rako Arabara antolatuta du irteera, Laudio, Artziniega, Amurrio eta Gasteiz bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 16tik aurrera 11:00etatik 12:00etara 30 eurotan.
- **Amezketak.** Odola emateko aukera izango da gela balioanizdunetan, 18:30etik 20:30era.
- **Anoeta.** Kirol Astea antolatzeko bilera, udaletxean 19:00etan.
- **Bedaio.** Hilaren 27an II. Raid Lasterketa antolatuta dute Bedaion, 25 kilometroko ibilbidea 09:00etan abiatuta. Izen-ematea, 24rako elkartean (www.bedaio.com). Antolatzailea: Artubi kultur elkarteak.
- **Tolosa.** Mugikortasun Astea: 10:00etan *Stop auto* desfilea eta performancea kaleetan zehar ikastetxeen eskutik; 19:00etan mugikortasun mahaiaren bilera udal batzar aretoan eta II. Mugikortasun Planaren aurkezpena.
- **Tolosa.** Hilaren 26an Alurtxiki elkarteak auzo afaria antolatuta du Urkizun. Izen-ematea, 652 70 96 80 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** *Zoriontsu izan: bizitzan konfiantza, onartuz eta barre eginez jardunaldiak* Kultur Etxean. Antolatzailea: La Risa Inteligente.
- **Tolosa.** Bisita gidatuak Topic-en (Euskal Herria plaza) urriaren 3ko eta 10eko asteburuetan, 12:00etatik 18:00etara. Izen-ematea, TEEn (Tolosako Ekinbide Etxea), 943 65 04 14 (09:00-13:00 eta 16:00-19:00) edota topic@cittolosa.com.

Erakusketa

- **Hernialde.** Mikel Iriondok Kuban ateratako argazkiak ikusgai daude Hernialdeko Ostatuan.
- **Ibarra.** Gerrako umei buruzko erakusketa Benito Izagirre kultur etxean. Sobiet Batasuna, Erresuma Batua, Frantzia, Mexiko eta Belgikan haur euskaldunek bizitako bizipenak jasotzen dira. Antolatzailea: Idi Ezkerra fundazioa.
- **Tolosa.** Iñigo Altolagirren pintura erakusketa Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** *Biblioteca en guerra* erakusketa dibulgatiboa Aranburu Jauregian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK


- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritziaren erantzukizunik.

Vietnamen, Errusian eta Marokon izan dira Urko Arruabarrena, Izarne Iglesias eta Alberto Letamendi, eta bertan ateratako argazkiak bidali dizkigute Argazki Lehiaketarako; animatu eta parte hartu!

Atzerriko bitxikeriak

VIETNAM ■ Irudi xeble haxe aukeratu du Urko Arruabarrenak Argazki Lehiaketarako: «A ze algarak egin genituen irudi hau ikusi genuenean! Ia ezin sinetsi! Baina hau posible al da? Vietnamitek bai dakitela behintzat errentagarritasuna ateratzen moto haeu! Baina ondo pentsatuta, txerri gaixoak!». URKO ARRUABARRENA



ERRUSIA ■ Paisaia haxe bidali digu Izarne lehiaketarako: «Argazki hau Sant Petersburgon ateratakoa da uda honetan, barkuti hain zuzen ere eta ikus dezakezen bezala, han dena ez da hotz, bi egun igaro genituen bertan eta bietan eguzkia egin ziguen».

IZARNE IGLESIAS GARCIA DE ITURROSPE



MAROKO ■ Alberto Letamendi tolosarrak argazki honekin hartu du parte: «Argazki hau Marokon, Essaouiran, atera nuen. Beti esaten dute «La prise mata», baina badirudi aiton hau erlojua begiratzen ari dela. Autobusa etorriko ote da?». ALBERTO LETAMENDI

A Agurrak



Urte askoan!

Ibai (Tolosa). Txoko-marrubizko muxutxo goxoak Osaba-izeba, aiton-amona eta lehengusu Ekhiñeren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak